

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE, BI PARTETAN BANATURIK

Ana M. TOLEDO LEZETA

“Euskarari buruz Detxepare-k eginikako bi olerkiek dantza tituluak dauzkate: *Kontrapas* eta *Sautrela*”¹ zioen Iker bildumako ale honek omentzen duen Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak. Berrikitan idatziak zituen Etxeparek euskaldunentzako aholkuak eta orain festaren ordua izanik, dantzara deitzen ditu. Bestela esanda, bi alditan ondutako liburua dirudi. Lehen aldi batean zentzu moralizatzailearekin darabil kodea, bigarreanean, ospakizunerako bitarteko du. Horra hor, *Linguae Vasconum Primitiae* atzemango diren bi parteak: lehen hamahiru koplez osatutako partea eta azken bi koplez osatutakoa. Lehen parte horretan euskaldunak aholkatzeko idazten du, bigarreanean, euskara idazketaren eta moldiztegiaren iragazitik iragazi izana ospatzeko dantzara gonbidatzen ditu.

Linguae Vasconum Primitiae izenburupean argitaratu zuen Bernard Etxeparek bere idazlana. Idazlanari buruzko lehen berria emateko aukera izenburuan daukanez egileak, leku aparta eskaintzen dio azpimarratu nahi duena adierazteko. Lehen berri hori zabaltzeko latina hautatu zuen, agian, euskaldunak ez zirenek ere jakin zezaten zein zen esku artean zeukaten bitxia: euskaldunen hizkuntzaren hasikinak. Latinaz baliatuz, beste hizkuntza kode baten hasikinak iragarri zituen. Hizkuntza kodera biltzen du arreta Etxeparek izenburuan: euskara mundu idatzira eraman izanera, hain zuzen ere. Giro errenazentista batetik ematen du ezagutzera liburua: hizkuntza idatziz

¹ HARITSCHELHAR, J.: “Kontrapas”, PEREZ GAZTELU, Elixabete; URKIZU SARASUA, Patri: *Patxi Altunari Omenaldia*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1990, 161. or.

ematearen garrantziaz jabetua dago. Badaki herri-hizkuntzek grafemaren erabilera ezinbesteko baldintza dutela hizkuntza landuaren estatusa eskuartzeko. Izenburuak berak adierazten duenez, asmo honi erantzuten dio liburuak: hizkuntza kodearen estatusa aldatzeari. Zein da, ordea, estatus aldaketa hau eragiteko eman zuen corpusa?

Lau gai erabili omen zituen Etxeparek bere liburua osatzeko: erlijioa, maitasun mundutarra, bere bizitzako pasarte bat eta euskara. Gaien arabera egindako sailkapen hau begiratzea aski da, beste sailkapen-irizpide bati bidea irekitzeko: lehen hiru gaietan hizkuntza bitarteko du, laugarrenean, berriz, hizkuntzara bertara biltzen du arreta. Honenbestez, lehen zati batean gai jakin batzuk jorrazteko tramankulu du kodea, aldiz, bigarrenean, kodea bera bihurtzen du gai. Bereizkuntza honek beste atalkatze-modu baterako norabidea erakusten du; izan ere, Roman Jakobsonek komunikazio-ekintzan bereizten dituen osagaiek erabakitzen dituzten funtzioak abiapuntu², honako funtzio-banaketa egin daiteke: aurreko hiru gaietan ez bezala, laugarrenean, funtzio metalinguistikoa da nagusi, kodearen norabidean idatzitako koplak baitira. Lehen hiru gaiez elikatuz ondutako hamahiru kopletan, ordea, agerriarrik ere ez du egiten funtzio metalinguistikoa.

Ez hori bakarrik. Lehen hamahiru koplak horietan euskaldunari zuzentzen zaio, aitzitik, azken bi kopletan, laugarren atalean, euskarari. Sail batean eta bestean, komunikazio-ekintza modu desberdinean planteatzen du, lehen hiru gaiek osatutako saila lehen eta bigarren pertsonen arteko komunikazio bezala aurkezten duelako eta laugarren gaiak eratutako sailean pertsonok desagertu egiten direlako: ez dago lehen pertsonaren markarik, bigarrenarena soil-soilik gelditzen da, baina bigarren pertsona honen erreferentia kodea bera da.

Lehen hamahiru kopletan funtzio erreferentzialarekin eta poetikoarekin batera funtzio emotiboak eta konatiboak indarra dute. Azken bi kopletan funtzio adierazkor edo emotiboa ia desagertu egiten da, igorlea erdigune duen marka linguistikoa bakanen bat dagoen arren eta, konatiboa, berriz, funtzio metalinguistikoa indartzeko bitarteko bihurtzen da, kodea baita hartzailearen norabidean kokatzen diren adierazpen gramatikalen erreferentia: hitanozko aditz-formak darabiltzanean, kasu, kodea deitzen du. Kodearen estatus aldaketaz diharduen mezurantz, koderantz arreta erakartzeko bitarteko du funtzio konatiboa. Lehen hamahiru kopletan, betiere, hartzailearen norabidean kokatzen diren adierazpen gramatikalen erreferentia aldatu egiten da, baina beti pertsonaren baten arreta erakarri nahi du edo pertsonaren bat deitzen du: dela Jainkoa, dela Ama Birjina, dela maitea... eta, batez ere, entzule-irakurle inplizitua.

² JAKOBSON, Roman: *Lingüística y poética*, Ediciones Cátedra, Madrid, 1981.

Beraz, funtzio-banaketa desberdin honetan oinarrituz, bi sail nagusitan berezirik beha daiteke Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*: lehen hamahiru koplek osatutako saila eta azken bi koplek osatutakoa. Aurreneko sailean funtzio metalinguistikoaren arrastorik ez den bitartean, bigarrenean, berau nagusitzen da.

Beste sailkapen-irizpide batetik ere bitan banaturik atzeman da *Linguae Vasconum Primitiae*. Grafia eta hizkuntzaren erabileraren alderditik aztertu eta, bitan banaturik zekusan René Lafonek:

On ne relève aucune différence dans la langue et la graphie entre les poésies religieuses, les poésies amoureuses et entre la Chanson. Mais entre ces trois parties du recueil, d'une part, et, de l'autre, la Préface et les deux dernières pièces, on peut noter quelques différences soit de graphie soit de langue, qui, pour menues qu'elles soient, ne paraissent imputables ni au hasard ni à l'absence d'une norme rigoureuse en matière de graphie ou de langue³.

Grafia eta hizkuntzaren azterketak ondorio jakin batera darama:

Ainsi, les deux poèmes en l'honneur de la langue basque et la Préface paraissent bien former un ensemble à part du reste et ont dû être écrits à la même époque et après le reste⁴.

Bi multzo bereizten ditu Lafonek *Linguae Vasconum Primitiaen* grafia eta hizkuntzaren erabileraren ikuspuntutik. Bi alditan mamitutako multzoak, hain zuzen ere. Lehen hamahiru koplek osatuko lukete multzo bat eta azken bi koplek hitzaurrearekin batera, bestea.

Grafia eta hizkuntzaren erabilerak *Linguae Vasconum Primitiaen* utzi duten hatza beste gertaera baten adierazle ere izan daiteke: liburuaren eraketarena eta eraketa horretatik jalgitzen diren ikuskerena. Ustea izan arren, iduri du Eiheralarreko erretoreak bazeukala “liburuxka” bat egina eta geroxeago edo geroago, betiere moldiztegitatu aurretik, bi koplak eta hitzaurrea erantsi zizkiola “liburuxka” horri. “Eranskin” horiek, –euskararen ohoretan eginiko bi koplak eta hitzaurrea–, erabaki zuten, azkenean, liburuaren izenburua.

Honenbestez, abiapuntuan bertan planteatu den bezala, bitan banaturik atzemango da *Linguae Vasconum Primitiae*: bi partetan berezia; bata lehenago ondua; bestea, berriz, geroago. Parte hauetako bakoitzak funtzio linguistiko desberdinak ditu nagusi.

³ LAFON, René: “La langue de Bernard Dechepare”, *RSVAP*, VII, 1951, 311. or.

⁴ LAFON, René: op. cit., 312. or.

Zein zen Etxeparek egina zeukan partea edo “liburuxka”? Gai desberdina baliatuz –erlijioa, maitasun mundutarra, bere bizitzako pasarte bat– moldatutako lekzioak. Alegia, lehen parte horretan erabilitako gaia ez da bakarra, bai, ordea, gaiok bideratzeko modua; izan ere, euskaldunari gaztigu jakin batzuk emateko bitarteko bihurtuko ditu.

Lehen hamabi kopletarako gaia eman ziotenak erlijioa eta maitasun mundutarra badira ere, gaiok ez zituen jorratu bakoitza bere aldetik, elkarrekin zer-ikusirik ez luketen barruti autonomo moduan, baizik eta elkarri hertsiki loturik dagoen koplak-multzoa osatuz: osotasun bat eratzeko atal ditu erlijioaz eta maitasun mundutarraz diharduten bi zatiok. Bi gaiok landuz egingako koplak-segidak ulerkuntza eta eraketa bati erantzuten dio, aurrez egingako plangintza bati. Guztiak, erlijiozkoak eta maitasunezkoak, lekzio bakar bat helarazteko bitarteko ditu, Andre Mariaren arartekotasunaz eta maitasunaz diharduen lekzioa, hain juxtu. Maitasun mundutarra gaitzetsiz, Andre Mariarenganako maitasunera euskaldunak irabaztea du jomuga. Hona, helburua erdiesteko ikasbidea: maitasun mundutarrean sufrimendua eta galerak daude (arima, ohorea... gal daitezke), aldiz, Andre Mariarengan, salbazioa.

“Mosen Bernat Etxaparere kantua”k, hamahirugarren koplak, pairatu zuen bidegabekeria baten berri ematen du. Baina, koplak ontzeko erabili zituen ehun eta bi bertso-lerroak ez zituen izan bizi izandako gertaera mingarri baten berri emateko soil-soilik, irakasteko bitarteko bihurtzen baitu berria. Bidegabekeria bat tarteko jasan duen epaiketa eta ondorengo espetxeratzea azaltzerakoan ez ditu nabarmentzen bakarrik gertaerak eragindako sentimenduak; izan ere, barnea husteaz gain, esperientzia horretatik ikasi beharrekoa azpimarratzen du. Igorritako albisteak aholkatzeko, gaztigitzeko baliabide du: “izterbegi duien oro nitan bedi gaztiga” (XIII, 16)⁵.

Honela bada, Etxeparek zeukan “liburuxka” Andre Mariaren arartekotasunaz eta maitasunaz emandako lekzioaz eta bidegabekeriari aurre egiteko lekzioaz osatuta legoke.

Lehen lekzioa moldatzeko hamabi koplak paratu zituen. Gaiz aldatu eta koplak bakar bat erabiliz, lehen lekzioari bigarrena erantsi zion. Nahiz eta aholkua bera lekzio batetik bestera aldatu, bi lekzioek euskalduna aholkatzea dute xede. Aholkua da sail batetik bestera aldatzen dena, aholkatzeko izatea, berriz, elkartzen dituen.

⁵ ETXEPARE, Bernard: *Linguae Vasconum Primitiae*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995. Aurrerantzean egingo diren aipamen guztiak edizio honetatik jaso eta, goian eman bezala emango dira: zenbaki erromatarrez koplaren zenbakia, honen ondoan bertso-lerroaren zenbakia.

Beraz, Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiaen* kodearen bi erabilera egiten ditu: behin irakasteko bitarteko du kodea, hurrengoan, kodea bera du gune. Helburu berbera betetzeko asmoa zuten –aholkatu– bi lekzior mol-datuta zeukan “liburuxka” bat. Lantegi hori idatziz mamitua izanik, dantzara igaro zitekeen: euskaraz idatzitako lehen liburua argitara emateko tenorean zegoen.

Aholkuak ematen dituen Etxepareren jarrera ez da dantzara igarotzen denaren berbera. Aholkuak ematen dituenarentzat herri-hizkuntza idatzia bitarteko bat gehiago da hizkuntza horretako hiztunei irakasteko. Honen aurrean, dantzara igarotzen denak, herri-hizkuntza idatzian hizkuntzaren estatus aldaketa dakusa. Batak eta besteak alderdi desberdinak azpimarratzen dituzte: lehenak Erdi Aroko gaien, pentsamenduaren, mundu-ikuskeraren, literaturari buruzko ikuspegiaren adierazle den koplak-saila idatzi zuen; bigarrenak, berriz, Errenazimenduaren kezka islatu zituen.

1. LEHEN PARTEKO LEHEN GAZTIGUA

Linguae Vasconum Primitiaeko lehen hamabi koplak Erdi Aroko erre-aula bezala aurkez daitezke; izan ere, koadro zehatza atzeman daiteke, baina, baita erreaula ere bere osotasunean. Koplak bakoitzak erakusten duen autonomiak ez du galarazten egitura handiago batera egiten duen ekarria. Gaiaren aldetik erlijiozko eta maitasunezko bezala bereizten direnak elkarrekin harremanetan daude: bada batasunik lehen hamabi koplen artean. Langaiak ordenatu ez izana behintzat ezin lepora dakioke Etxepareari. Gainera, lekzio bat emateko moduan ordenatu ditu langai horiek. Oso egituratutako lekzioa da: ikuspegi panoramikoetik ikuspegi monografikora jauzia eginaz, Andre Mariaren arartekotasunaz eta maitasunaz diharduen lekzioa.

Hitzaurrean dioenez, “eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragaiteko materia” (79. or.) izan dezaten idatzi du. Juntagailu kopulatiboak lotzen dituen “doktrina” eta “plazerra” elkarren ondoan badoaz, katea sintagmatikoak aldi berean ematea eragozten duelako da, zeren eta idazlanean barrena ez ditu aurkeztuko batuketa moduan, baizik eta fusio moduan. Bat egiten dute biek.

Lehen itxura batean iduri du erlijiozko koplak lituzkeela doktrina emateko bide eta maitasunezkoak, berriz, “plazer hartzeko”. Haatik, maitasunezko koplak hauetan gozamenaren bilaketa nabaria den arren, doktrinaren zerbitzura jarri zituen. Maitasun profanoan aurkez daitezkeen egoera desberdinak azalduz

paratutako koplak maitasun sakratura erakartzeko bide ditu Etxeparek: egin behar ez dena erakutsiz, egin behar dena erakartzea du jomuga⁶.

Lehen koplak, “Doktrina Kristiana”n kristau doktrinako gai desberdinak jorratzen ditu: Jainkoak gizakia sortu duela eta honen eginbeharra Hura zerbitzatzea dela gogoratzen du; arratserako eta goizerako otoitzak ematen ditu; hilerri, ponte, sagrario eta gurutzea gogora ekartzen ditu; Ama Birjina eta Santuen laguntza eskatzen du; igandetarako otoitz bat aurkezten du eta, hiru egiez, hamar aginduez eta Judizio jeneralaz jardun ostean, salbazioa eskuratzeko laguntza eskatuz, Andre Mariari zuzendutako otoitz batekin jartzen dio amaiera lehen koplari. Amaiera honen aurretik ere, behin eta berriz eskatua zuen Andre Mariaren laguntza: Judizio jeneralari buruzko ikasgaia bera “zure ama anderia dakigula balia” (I, 388) esanaz bukatzen du. Ikusten denez, lehen koplak honetan bertan Andre Mariari salbaziorako laguntza eskatzea gai errepikari du.

Hurrengo koplak, “Amorosen gaztiguia”k Andre Mariaren figura du erdigune: Ama Birjinaren ezaugarri eta ahalmenak erakutsiko ditu. Ezaugarri horietako bat aurkeztua zuen, baita adierazpen-modu desberdinetara joz, behin eta berriz errepikatua ere, “Doktrina Kristiana”ko leku desberdinetan. Andre Maria gu gizaki bekatarion eta Jainkoaren artean arartekoa dela esana ez ezik, azpimarratua zuen lehen koplak bertan:

Jeinkoak zuri eman dizi potestate handia,
haren ama ziren gero, ama ere maitia,
zeru eta lur orotan duzun hanbat balia,
zer zuk galde baitagizu, den konplitu guzia,
eta zure eskutik duten berze orok grazia
eta salba zuk dezazun zuri gomentatuia (I, 413-418).

Bigarren koplak ezaugarri hau berau nabarmentzen jarraitzen du:

Orai egiten diraden gaizki handiegiatik
Jeinkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
balinetan zu ezpazina ararteko gugatik (II, 136-139).

Haatik, oraingoan, batik bat beste berezitasun bat garatzen du: Andre Mariaren maitasunaren izaera betegina du gune. Maitasun leiala, partekatzen dena, inor baztertu gabe, guztiei eskaintzen zaiena da Zeruko Andrearen ematen duena. Andre Mariaren maitasunaren ezaugarri hau gardenago eta azpimarratuago gera dadin, aurkakotasuna bide aurkeztea hautatu du, zehazki, lurreko amorosen arteko maitasun-harremanen aurrez aurre jarritz:

⁶ “El predicador medieval echaba mano de malos ejemplos para mostrar al público lo que había que evitar”. DEYERMOND, A. D.: *Historia de la literatura española. La Edad Media*, Editorial Ariel, Barcelona, 1973, 191. or.

Berze amoreak baten bezi eztirade perestu,
nork beria berziari eztu nahi partitu;
ama birjen gloriosa hanbat bada konplitu,
ororentzat bera baita, leial dela abastu (II, 41-44).

Andre Mariaren motiboa da lehen bi koplak uztartzen dituen. “Doktrina Kristiana”n erabilitako gaietako bat Andre Mariaren arartekotasuna izan da. Bigarren koplara, “Amorosen gaztiguia”ra igarotzean, gai monografiko bihurtzen du Ama Birjina eta aurreko koplan atxikitako ezaugarriari, beste bat eransten dio: maitasun betegina. Hau da, lehen koplatic gai bat jaso eta, hurrengoan jarraipena emateaz gainera, osatu egiten du, ordu arte azaldu gabe zeukan alderdi bat gehitzean.

Koplak kateatuz jarraitzen du Etxeparek; izan ere, andre kate-maila “Amorosen gaztiguia”tik “Emazten fabore”rako iraganbide du. Bigarren koplan gune zuen Zeruko Andrearengandik lurreko andrearenganako jautzia egin hirugarren koplan eta, andre honen ezaugarri eta ahalmenak azalduko ditu. Andre elementu komunak lotzen ditu bi koplak:

Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gainetik;
zerutika jaitsi zedin harzaz amaturik;
emaztiak ezarri du gure anaieturik;
andre oro laudatzeko haren amorekatik (III, 47-50).

Alderdi komunak ez du estaltzen apartekoa den alderdia. Ama Birjina laudatzen duen bigarren koplan, “Amorosen gaztiguia”n, esana zuen lurreko andreak ez dituela zerukoaren dohainak:

Berze emaztiak ama dira zenbait hurto xipiren
eta gero obororik punzela ezin dirate;
zu, anderia, ama zira birjinarik Jeinkoaren
eta geroz erregina zeru eta lurraren (II, 104-107).

Etxeparek ez du etsi Erdi Aroak Ama Birjinarengan miresten zuen kalitate agerian jarri gabe, aurkakoak diren ezaugarriak batzean erakusten duen osotasuna, hain zuzen ere: birjina eta ama da aldi berean. Ez du horrelako berezitasunik lurreko emakumeak, aurkakoak diren ezaugarri horietako bakarria bereganatzen baitu: ama da soil-soilik.

Lurreko andre honek huts bat besterik ezin egin dezake, “andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite” (III, 6). Honenbestez, lurreko amorosen arteko maitasun-harreman faltsu eta traidoretan parte har dezake, bekatuzko amorearen uretan murgil daiteke. Gizonezkoa da, ordea, bekatu horren erantzule; izan ere, “gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik” (III, 2). Alegia, gomita onartzeagatik huts egingo luke, ez horrela gizonezkoa gonbidatzeagatik.

Laugarrenetik hamabigarrenera doazen koplek maitasun mundutarrean aurkezten diren egoera desberdinak adierazten dituzte. IV-XII koplek artean erakutsitako etsenpluek frogatuko dute; batetik, amorosen arteko maitasuna ez dela Zeruko Amarena bezalakoa; bestetik, gizonak direla andrea bekatu bidean jartzen dutenak⁷.

“Doktrina Kristiana”n ikuspegi panoramikoa eman eta, monografiarako bidea hartzen du. Erlijio gaien zabaltasuna utzi eta erlijio gai zehatz batera igarotzen da: Mariaren arartekotasuna eta maitasuna. Murriztuz doa ikuspegi, izaki zerutiar jakin batera biltzera arreta. “Doktrina Kristiana”n erabilitako gai desberdinetan gai errepikari izan den Andre Mariarena hautatzen du garatzeko. Gai horrekin berarekin ixten du kristau doktrina eta irekitzen hurrengo koplak, “Amorosen gaztiguia”: Andre Maria eta beronen arartekotasuna da kristau doktrinatik “Amorosen gaztiguia”rako iraganbidea.

Kopla solteak paratzeko lantegia baino gaitzagorik hartu du esku artean. Lehen bi koplek arteko lotura erlijioa gaia erabiltzeak eragindakoa baino bilatuagoa, egituratuagoa, estuagoa, zehatzagoa da. Izaki zerutiar baten laguntza eskatuz eman amaiera “Doktrina Kristiana”ri eta izaki zerutiar hori gune bihurtzen du hurrengo koplak, “Amorosen gaztiguia”n. Andre Mariari buruz lehen koplak emaniko azalpenak osatzen ditu, ararteko ez ezik, maitasun betegina eskaintzen duena baita. Maitasun betegina lurreko amorosen arteko maitasun-harremanei aurkajarriz aurkezten du eta, hala, osagai berriari egiten dio tarte: lurreko gizon-emakumeen arteko maitasuna. Gisa honetan, bigarren koplak maitasun mundutarraren gaiari irekitzen dio bidea, IV.etik-XII.erarteko koplek artean garatuko den gaiari, prezeski.

Andre Maria da lehen bi koplek arteko lokarria, baita IV- XII koplak eragiten dituen ere. Andrea da, berriz, bigarren eta hirugarren koplak kateatu ondotik, VIII, IX, X, XII koplak sorrarazten dituen.

Maitasun mundutarrean jokabide desberdinak atzematen ditu gizon-emakumeen artean. Gizona da haragizko bekaturako gomita luzatzen duena, gizona da aurea hartzen duena. Hirugarren koplak honetan azaldutako ikuspegia VIII, IX, X, XII koplek zabalduko du, andrearen ahotsa zuzenean ekartzen duenean, hain juxtu. Kopla horietan gizona da andrea gonbidatzen duena maitasun mundutarrak gozatzera. Baita honen ezezkoa jasotzen duena ere.

⁷ TOLEDO, Ana M.: “Maitasun mundutiarra Etxeparerengan: ‘baskoen gaztiguia’”, *Euskal Gramatika eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendean*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

Erretorika klasikoan baliabide ezaguna zen eta Erdi Aroko artearen teorian sustraitzen den “amplificatio” printzipioaren aplikazioaz baliatzen da⁸.

Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere;
amoretan plazzer baten mila dira dolore (II, 7-10)

dio bigarren koplari, “Amorosen gaztiguia”n. Ideia hauxe da hedatzen duena. Pentsamendu bakar eta berbera errepikatzen du zabalduz. Laugarrenetik hamabigarrenera doazen koplek zerbait erakusten badute zera da, maitasun mundutarrak dakartzan doloreak. Pentsamendu honi beste bat gehitzen dio hirugarren koplari, “Emazten fabore”n –“gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik” (III, 2)–. Aurrekoari bezala “amplificatio”aren printzipioa aplikatu eta, VIII. koplari XII.era errepikatuko du hedatuz; izan ere, koplari horietan maitasun mundutarrak gozatzeraz gonbidatzen duen gizonaren eskaerari ezezkia emango die emakumeak, arrazoi sozial eta erlijiosoetan oinarrituz erantzuna.

Beraz, lehen hamabi koplak ez dira bata besteari atzetik doazen koplak solteak. Ez dute osatzen koplari solteen segida bat, elkarrekin harremanetan dagoen koplari-multzoa baino. Koplari horien arteko lotura, berriz, gisa honetan eratu du: aurreko koplari elementuren bat hartu, osatu eta hurrengo koplari baterako hazia eratu: lehen koplari, “Doktrina Kristiana”tik Andre Mariari arartekotasunaren gaia hartu eta osatu egiten du “Amorosen gaztiguia”n Andre Mariari eskaintzen duen maitasun betegina azalduz. Azalpen hau emateko aurkakotasunaz baliatzen da: maitasun mundutarraren izaera faltsu eta traidoreari aurkajartzen dio. Horrela, IV.etik-XII. koplari erakutsiko duen maitasun mundutarraren gaiari irekitzen dio bidea. Aldi berean, Maria andrea izatea, hirugarren koplari, “Emazten fabore”rako iraganbide du. “Emazten fabore” honetan maitasun mundutarrari harremanen eragiletzat gizonezkoa jotzeak, VIII, IX, X, XII koplarietarako hazia ereingo du. Ez dago etenik: iraganbidez iraganbide segida bat eratzen dute.

Andre Mariari motiboa da lokarri moduan darabilena, motibo honek uztartzen baitu lehen hamabi koplari. Koplari erlijiosoak eta maitasun mundutarrak dihardutenak kateatzeko eginkizuna du: horra hor lehen hamabi koplari arteko batasun-gunea. Erdi Aroko literatura erromantzeetan maiz azaltzen den motibo batera jotzen du Etxeparek lehen lekzioa emateko, zehazki, herri-hizkuntzetan egindako literatura erlijiosoan zabalkunde handia izan zuen motibo batera.

⁸ BUCK, August et alii: *Literatura universal. Renacimiento y Barroco*, Editorial Gredos, Madrid, 1982, 109. or.

Oso bestela jokatu zuen Oihenartek *O.ten gaztaroa neurthitzetanen*. Berezi egin zituen neurtitz profanoak eta erlijiosoak. Argi eta garbi berezi ere. Neurtitz profanoen saila ixteko bide du XVII. poema, “Joana”, musen kontra idatzia. Musen arnasapean idatzitakoei amaiera jarri eta, beste nonbait jar dezake etorria. Jatorri desberdinetakoak izaki neurtitz batzuk eta besteak etena ezartzen du beren artean. Ez da horrelako hausturarik Etxeparerengan: Andre Mariaz igorri nahi duen lektzioa da koplak profanoei bidea irekitzen diena eta, gisa honetan, mundu sakratua eta mundu profanoa uztarturik azaltzen dira. Azken batez, mundu profanoko maitasunaz emandako ikasgaia mundu sakratuko maitasuna hobesteko bitarteko du. Anplifikaziorako, jakina, inolako irabazirik gabe, penak soilik eragiten dituen maitasun mundutarra hautatzen du. Etxeparek Andre Mariaren maitasun beteginaz lektzioa emateko, amorosen arteko maitasun akastunak dakartzan penak eta minak erakusten ditu.

Lektzioa emateko azalpen eta etsenpluetara jotzen du. Azalpenak hirugarren koplari utzi eta, hortik aurrera, maitasun mundutarretik ateratako zortzi etsenplu ekarriko ditu. Etsenplu horietan barrena, amorosen arteko maitasunak eragiten dituen penak eta minak erakusten ditu, harik eta etsenplu guzti horietan esperientzia ezkorrak bizi izan dituen “ni”ak etsitzen duen arte:

Andre faltaz eniz hilen balinba ni lehena;
 oroz etsi behar dizit, non baitate hobena;
 heki ezin medra naite, bai gal neure arima (XII, 53-55).

Probetxurik ez ateratzea eta arima galtzeko arriskua: horra hor maitasun mundutarrari uko egiteko arrazoiak. Maitasun mundutarrean hain esperientzia ezkorrak izan dituen “ni” horrek Andre Maria besterik ezin dezake eduki gogoan. Berez, iragarria zuen “Amorosen gaztiguia”ko lehen bertso-lerroan bertan:

Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria (II, 1).

Erdi Aroko sermoilariak legez jokatzeko okerreko bidetik hartutako etsenpluak agertuz, saihestu behar den hura azaldu jendeari. Andre Mariak eskaintzen duen maitasunari buruzko lektzio monografikoa helarazteko maitasun mundutarretik jasotako etsenpluak darabiltza, maitasun beteginera erakartzeko akastun maitasuna ezagutaraziz.

1.1. Giza bizitzatik mamitutako gaztiguia

Maitasun akastuna etsenpluetarako iturri bihurtzean, lektzioa giza baldintzatik bertatik moldatzea erabaki du: hamabi koplak hauek giza bizitzatik egindako lektzio errimatua osatzen dute. Andre Maria gogoan daukan “ni”

horrek maitasun mundutarra ezagutu duela aitortzen du: “Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore” (II, 7). Hots, lekzioa emateko hartzen duen jarrera ez da tentazioak beti gainditu dituenarena eta garaipen horren itzalean herri-bekatariari zuzentzen zaionarena. Aitzitik, elizaren doktrinaren lerrorik ortodoxoenean kokatuz, –“Kulpa gabe ehor ezta, haur da segur egia; / bekhatuiaz damnatzen du Jangoikoak mundua (II, 88-89)– gizaki bekatari legez aurkeztuz ontzen ditu bere koplak. Ez du ukatzen haragia burmuinetan eraman izana. “Ni” horrek gizakiaren ordezkari legez hitz egiten du: badaki zer gertatzen den gizakiaren barnean eta barnean gertatzen den hori, hain juxtu, kanporatu nahi du.

Andre Mariari buruzko lekzioa eratzeko azalpenak eta etsenpluak elkar-tzen ditu. Egin behar dena adieraztea azalpenetara mugatu eta egin behar ez dena darama etsenpluetara. Mundu ezagunaz, gizakiak bizi duenaz baliatuz, –maitasun mundutarra–, mundu ezezagunak, bizi eta ukitzen ez denak dituen onurak jakinarazten ditu. Giza esperientziatik ateratako etsenpluak erabiltzean, gizakiari hurbildu eta, bere barnean gertatzen denaz jakitun dela aditzera eman nahi dio. Bertutera erakartzea xede, gizakiari bere mintzairan hitz egiten dio, gizaki bezala ulertzen duen mintzairan: haragizko bekatua erakutsi, bizi eta sentitzen dena erakutsi, hain eskura sentitzen ez den Andre Mariaren maitasunaren abantailez konbentzitzeko.

Konbentzitzeko asmoarekin idazten du. Asmo hori agerian utzi zuen nola hartzailearen borondatea irabazteko egindako ahaleginean, hala logika kausalaz baliatzean.

Konbentzitzeko asmoaren menpe dago komunikazioaren hartzailea konfidantzazko lagun legez hartzea. Bigarren pertsonaren erabileraren bidez hartzailea deitu eta, testura bertara darama. Irakurle-entzuleen borondatea eta arreta irabaztea bilatzen du, kontatzen ari denaren kide emozional egitea. Tratamendu-formak (zutanozkoa, hitanozkoa), agintera... ditu hartzailearekin harremanetan jartzeko bide, helburu jakin bati erantzunez: mezura erakarri, mezua beregana dezan eta, hala, bere portaeran alda dezan. Honela, oso markatua den funtzio konatiboa helburu moralizatzailea eskuratzeko lagun-garri du.

Logika kausalak gobernatzen ditu hamabi koplak hauek. Arrazoiaren gidaritzapean paratutako koplak dira. Argudiatu, ondorioztatu, laburbildu... eragiketak ditu oinarri nola koplak ontzerakoan, hala koplak-multzoa egituratzerakoan. Laugarren koplak hamabigarrenerainoko etsenplu guztiak tesi bat argudiatzeko darabiltza: maitasun mundutarretik biltzen den uzta “probetxurik batere; / anhitz pena, arima gal” (II, 8-9) dela.

Arrazoiaren agindupean egindako koplak hitz bihurtzeko eguneroko hizkeraren ordenari lotu zitzaion. Mintzaira mintzatuko joskerari eutsiz, zan-

galatrau eta hiperbaton bortitzetatik urrutiratzen da. Hitz neurtua adierazpide izan arren, hitzen ordena mintzaira mintzatuan bezalakoa da:

Esaldia bi lerrotan edo gehiagotan barna hala luzatzen denean, hitzen ordena egunoroko hizketan bezala, prosazkoan bezala, jarriotzen da batere bortxarik gabe, hitz bakoitza dagokion lekutik atera gabe, hitz-katearen maila bakoitzak bere lekua gorderik. Hainbestearino da hori egia, non baldin erritmoa oso markatua ez badu, ez eta puntua oso aberatsa, hura entzuten duenak pentsa bailezake hitz lauuko testua entzuten ari dela⁹.

“Mitxelenak ‘hitz-andana’ izendatu zituenak oso-osorik” gordetzea¹⁰, hitzen ordena eguneroko hizketan bezala jarriotzea, ez ote lekzioa azaltzen jardutearen eskakizun? Giza portaeran eragiteko eratu duen lekzioa argudioaren gain eraikitzen bada, aukera batzuen onurez hartzailea konbentzitu nahian badabil, eguneroko hizketaren ordena gordetzea aurreko baldintzekin bat egitera dator. Nola uztartu, bestela, lekzioa ematea xede izan eta adierazteko orduan eguneroko mintzairatik urrutiratzea?

Azken finean, lehen hamabi koplak hauek Erdi Aroko sermoiaren egitura erakusten dute, zehazki, herri-sermoiarena¹¹. Herri-sermoia, bai, baina ez horregatik eragin eruditurik gabea. Herri-sermoia herri-hizkuntzaz baliatzen den neurrian; izan ere, latinaren erabilera, hizkuntza landuaren erabilera izenburura mugatu eta, herri-hizkuntza batean dihardu: euskaldun elebkarrek ulertzen duten hizkuntza bakarrean; alegia, euskaldun gehienak ulertzen duten hizkuntza bakarrean. Herri-sermoia, halaber, bere doktrina modu atseginean aurkezten duen neurrian. Hitzaz baliatuz sortutako produktuen artean lekuren bat lortzeko, hartzaileak eskura zeuzkan eskaintzekin lehia-tzeko, doktrina modu atseginean eman beharra zegoen. Etsenpluek lagundu egiten zuten doktrina erakargarriago egiten eta, ondorioz, hartzailego zabalagoa heltzeko aukera gehitzen. Are gehiago lagun zezaketen gizakiak sentitzen duen hartan oinarritutakoak izanik.

Erdi Aroko errealista eskolastikoentzat bezala unibertsalak, klaseak edo abstrakzioak eta ez zentzuek atzematen dituzten subjektu partikularrak edo zehatzak dira benetako errealitateak *Linguae Vasconum Primitia*eko koplak

⁹ ALTUNA, Patxi: “Etxepareren 450. urteurrenaren hondakinak”, PEREZ, Elixabete; ZULAIKA, Esther (Ed.): *Haizeak ez eramango!*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 2002, 85. or.

¹⁰ ALTUNA, Patxi: *Ibidem*, 86. or.

¹¹ “Dos clases principales se daban de sermones: los cultos (*divisio intra*), dirigidos a una congregación de clérigos normalmente en latín, y los populares (*divisio extra*), en romance, concebidos para una asamblea de laicos y letrados en su mayor parte” DEYERMOND, A. D.: *Historia de la literatura española. La Edad Media*, 114-115. orr.

hautan. Etsenpluetan egoera-klaseak aurkezten ditu: “Ezkonduen koplak” deritzanean, maitatutako andrea besterekin ezkonduta egon ezkerro jasaten diren penak; “Amoros secretuqui dena” izenburua daramanean, bere maitasuna deklaratzera ausartu ere egiten ez den maitaleak pairatzen dituen minak; “Amorosen partitzia”n, berriz, maitearengandik banatzeak dakarren sufrimendua, berriro elkartu arte dirauen sufrimendua; “Amoros jelosia”n beste egoera bat, maitea leial ez izateak eragindako doloreak... Egoera desberdin hauek eragindako penak adierazi dituen “ni”ak, maitasun mundutarrak gozatzea bilatuko du hurrengo kopletan, “Potaren galdatzia”n, “Amorez errekeritzia”n, “Amorosen disputa”n... zehar, baina, arrazoï sozialetan eta erlijiosoetan oinarrituz, emakumeak ez du onartuko gomita. Bortxaketaraino heltzen da “ni” hori, harik eta, azken koplari, “Amore gogorraren despita”ren amaieran etsitzen duen arte: “oroz etsi behar dize, non baitate hobena; heki ezin medra naite, bai gal neure arima” (XII, 55-56).

Etsenpluetan aurkeztutako egoerak “ni” batek bizi izandakoak dira. Haatik, “ni” hori ere, ez da subjektu partikular bat, zehatz bat: gizakumea ordezkatzeko du. Gizonezkoaren esperientzia azaleratzeko bitarteko da. Gizonak barne-barnean daramanez maitasun mundutarraren erakarmena ez du erraza gaintzea, “ni” horrek bizi izandakoak, ordea, lagun diezaiokie; izan ere, ez du eskuratu erabat asegarri izan zaion egoera bakar bat ere. Hain indartsua da maitasun mundutarrak gizonezkoarengan eragiten duen lilura, berebiziko sufrimenduetatik igarotzeaz gainera, burua galdu eta bere maitalea bortxatzera hel daitekeela: arrazoia galdu eta basati bihurtzera ailegatzeko da. Arima galtzeko arriskuak bakarrik dauka sen hori zentzatzeko ahalmena. Gizonezkoak, gizonezkoaren senaz dihardu Etxeparek eta ez banakotua dagoen gizonezko jakin baten, gizonezko partikular, zehatz baten senaz.

Gizakumea ez ezik, emakumea ere erakartzen du maitasun mundutarrak. Emakumeak, ostera, erakarmen horri aurre egiteko beste indar du: norberaren eta etxekoen izen ona gordetzean eta Jainkoaren gogoko ez izatean aurkitzen du tentazioari uko egiteko kemenak. Horra hor andreak ematen dituen arrazoiak gizonezkoak maitasun mundutarrak gozatzerako gonbidatzen duenean: hala dio bere ahotsa zuzenean jasotzen duten lau kopletan. Lau koplari hauen forma dramatikoak “maitasun mundutarrak gozatu” gaiak bi ikuspuntuak –gizakumearena eta emakumearena– aurrez aurre jartzeko bide du Etxeparek. Ikuspuntu desberdinak agertuko direla lau koplari horietako biren izenburuek jada iragartzen dute, –“disputa” (X) “despita” (XII)–: Erdi Aroak gogoz landu zuen genero baten izena bera darama izenburura. Dialektikak bazuen garrantzirik Erdi Aroko hezkuntza-sisteman: elkarren kontrakoekin topaketatik sortuko zela egia uste zen.

Maitasun mundutarrak gozatzearen gainean bi ikuspuntu aurkajartzen dira, gizakumearena eta emakumearena. Ez dira bi subjektu partikularrek

azaldutako ikuspuntuak, generotik azaldutako iritziak baino: gizona klasearen ikuspuntua, emakumea klasearen ikuspuntuaren aurrean.

Andrea da gizonezkoa zorutzen duena. Prezezki, izen propio baten jabe izatera ere iristen ez den andrea. Dante, Petrarka edo Garcilaso de la Vega zoratuak zituzten Beatrizek, Laurak, edo Isabel Freyrek... Oihenart, berriz, Grazianak, Margaritak, Argiak, Xuriak... Etxepareengan klasea –emakumea– zena, subjektu partikular bezala atzemana zuten poesian eta, euskal poesian bertan, geroago, hala atzemango du Oihenartek berak.

“Andre eder eta jentil” (V, 1) batek ebatsi dio bihotza gizonezko honi. Ezaugarri horiek ditu maitemindua sena galtzera eraman du(t)en emakumeak: “hanbat da eder eta jentil” (V, 23); “Amore bat ukhen dizit miragarri jentilik” (VII, 3); “Zure irudi ederrak eta maina jentilak” (IX, 37); “Andre eder jentil batez hautatu zait begia” (XII, 1). Ederrak dira, halaber, Oihenarten neur-titzetako maitaleak maite dituen Argia, Xuria... eta horiek, baina, orain zehaztu egiten da edertasuna: gorputz atal desberdinen neurriak (oinak, eskuak, bularrak...), gorputzaren luzera, azalaren kolorea... Edertasunaren kanon bat dago indarrean. Kanona baldin bada ere, eder kategoria zehaztu egiten da. Azalaren koloreak, begienak, ilearenak... eta gorputz atalen neurri jakin batzuk mugatzen dute gorputz ederra. Etxepareengan ez bezala, edertasuna partikularizaturik azaltzen da.

Etxeparearen etsenpluetan ez dago subjektu partikularrik: ez “ni”a eraitkitzen da subjektu partikular moduan, ezta “ni” hau zorutzen duen andrea ere. Are gutxiago dago subjektu partikularrik etsenplu hauen aurretik doazen kopletan: “Doktrina Kristiana”n lehen pertsona pluralaren erabilera nagusitu egiten zaio lehen pertsona singularraren erabilerari; “Amorosen gaztiguia”n edo “Emazten fabore”n ere bada lehen pertsona pluralaren erabilerarik. Abantailak besterik ez dizkio eskuratzen lehen pertsona pluralaz baliatzeak; izan ere, batetik, hartzailearengana hurbiltzeko baliabide du; bestetik, ez du inolako eragozpenik lehen pertsona singularra plural horretara biltzeko, giza-ki legez hitz egiten ari baita eta ez subjektu partikular gisa. Etxeparek ez darma bere koplelara bere esperientzia erlijiosoa edo emakumeari buruzko ikuskera berezia, baizik eta kristau doktrinak irakatsi diona edo emakumearen alde emanda zeuden argumentuak. Ez dago modu berezian bizi izandako esperientzien adierazpenik; adierazpen pertsonalik, berezitasunik, indibidualismorik¹². Ez dago “ni”a abiapuntu duen koplarik, “ni”ak beti klaseren bat

¹² Honela dio J. A. Maravall-ek: “un aspecto del Renacimiento que siempre se cita, pero muchas veces sin darle la hondura que le corresponde. (...) Hablamos ahora del *individualismo*. [...] Ese individualismo va de lo religioso a lo científico, a lo económico y jurídico”. MARAVALL, José Antonio: “La época del Renacimiento”, LÓPEZ ESTRADA, Francisco (Ed.): *Historia y crítica de la literatura española. Siglos de Oro: Renacimiento*, II. liburukia, Editorial Crítica, Barcelona, 1980, 51. or.

ordezkutzen duelako: kristauak, emakumeak defendatzen dituztenak, giza-kumea, emakumea... Erdi Aroko arte klerikala du oinarri eta ez Errenazimenduko humanista.

Honela bada, Etxeparek bat egiten du Erdi Aroko literaturaren zentzu moralizatzailearekin. Etxepare elizgizonak munduan bizi den gizakiari aholku bat eman nahi dio: utzi ezazu maitasun mundutarra eta bizi zaitez Andre Mariaren maitasunean. Horretarako, sermoiaren egitura zuen lekzioa mamitu eta, sermoietan bezala, doktrina ongarri arinagoekin uztartu zuen. Sermoia logikaren legeen arabera eratu zuen, arrazoiaren agindupean paratutako hamabi koplak bidez. Arrazonamendu-modu eskolastikoak erabilitako baliabideak ditu euskarri, dela amplificatio printzipioaren aplikazioa, dela logikaren egituratik eratortzen den eztabaida, dela subjektu partikularrak gabe, klaseak atzematea...

2. LEHEN PARTEKO BIGARREN GAZTIGUA

Amorez eta amoresez diharduten koplak ostean datorren “Mosen Bernat Etxeparere kantuia”k, izenburutik bertatik kontrastatzen du, nola aurreko koplekiko, hala ondokoekiko ere. Honainoko koplak izenburuetan ez zen izen propiorik, ezta bere jarraian etorriko direnetan ere. Koplak barrena, gainera, bada beste zehaztasunen bat edo beste ere: Jaun Erregek deitu zuen Bearnora...

Alde horiek, haatik, ez dute estaltzen hamahirugarren koplak honek aurreko hamabiek duen harremana: hauetan bezala maila esperientzietik adierazten du gertaera, hauetan bezala mezura erakarri nahi du hartzailearen arreta, hauetan bezala aholkatzea du xede.

Maila esperientzietik aholkatzeko jarrera hartzen du Etxeparek lehen hamahiru kopletan, nahiz eta alde txiki bat egon badagoen: lehen hamabi kopletan “ni”a zen igorlea, orain, “Mosen Bernat”.

Hala, “Mosen Bernat Etxeparere kantuia” aitorten moduan jo da: bere bizitzako pasarte bat kontatuko luke, nola Jaun Erregek Bearnora deitu zuen eta justiziarik egin ez zuen epai baten ondotik espetxeratu izan zen.

XIX. mendeko kritikak hamahirugarren koplak hau ez ezik, aurreko hamabiak ere aitorten moduan jo zituen. Indarrean zegoen ikuspegi erromantikoaekin bat egin zuen: idazlana barne hustuketaren emaitza da, poetak bere barnean gorde ezin ditzakeen sentimenduen leherketa. Idazlanaren ulerkuntza honetatik eratorri zen kritika biografikoa, idazlanean agertutako “ego” lite-

rarioa “ego” biografikoaren argitan atzematen zuen kritika-modua, hain juxtu.

Baina, Etxepareren bizitza ez zen ezagutzen eta “ego” literarioaren adierazpen soila abiapuntu hartuz, “ego” biografikoa eraiki zuten. Alegia, Etxeparek utzitako dokumentu literarioari, besterik gabe, dokumentu historikoaren balioa egotzi zioten: egilearen aitortpenak jasotzen zituen *Linguae Vasconum Primitiaek*. Gerora ere ezezaguna izaten jarraitu du Etxeparek, ez baita eskuratu biografia xumeena egiteko beste dokumentu eta, dokumentu literarioak segitu du dokumentu historikoaren iturri izanaz, dokumentu literarioak, historikoak ez bezala, historia eta fikzioa nahasteko daukan lizentziari jaramon handiegirik egin gabe.

Hamahirugarren koplak hau autobiografikotzat jo da. Oso datu gutxi ematen ditu, ordea, eta berez dokumentu historikoa eraikitzeko bitarteko sendo baino gehiago espekulaziotarako bitarteko izan da: zein izan ote zen egin zuen ogena, zein espetxeratzeko arrazoia¹³, non eta noiz izan ote zen giltzapetua, zenbat denboraz luzatu ote zen aldi hori...

Biografia baterako datu-iturri baino gehiago galdera-iturri da. Ehun eta bi bertso-lerro horien jomuga ez zen biografia baterako datuak uztea; izan ere, hala nahi izanez gero, bazuen lekurik emandako xehetasunak ugaltzeko, baina bestetarako erabili du leku hori: gertaera mingarri baten berri zehatz-mehatz igortzeko baino gehiago, bere burua zurrizteko eta, batik bat, gisa honetako bidegabekeria paira dezakeenari lekzioa emateko.

Biografikoa izan eta, bere burua zurrizteko asmoz idatzia balego ere, beste xede batek darama berri hori ematera: aholkatu. Hamahirugarren koplak honek egilearen zeinahi asmori erantzunda ere, gaztigatzeko idatzi izanean justifikatzen du gertaeraren albistea adieraztea: aitzakia izan ala ez, babes moduan erabili ala ez, aholkatu nahiaren janzkerarekin aurkeztu zuen. Hots, Erdi Aroko literaturaren zentzu moralizatzailearekin bat eginaz jarraitzen du: literaturak zerbaitetarako balio behar du. Oinarri autobiografikodun lehengaita bada ere, irakaskuntzarako bitarteko bihurtzen du:

Berzen gaitzaz zenzatzia zuhurtzia handi da;
izterbegi duien oro nitan bedi gaztiga (XIII, 15-16).

Aurreko hamabi koplekin bat egiten du lehen eta bigarren pertsonen arteko komunikazioa euskarri izatean. Horietan bezala bigarren pertsonaren

¹³ “Se han hecho dos suposiciones sobre las posibles causas de la condena: motivos políticos, por inclinarse en favor de Fernando el Católico en sus aspiraciones al trono de Navarra, o bien inmoralidad de algunos de sus poemas”. ALTUNA, Francisco María: *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Mensajero, Bilbao, 1979, 17. or.

erreferentea ez da beti berdina, Jainkoa, nahiz bere burua, nahiz entzule-irakurle inplizitua izan daitekeelako erreferente hori. Baina, hamahiru kopla hauetan, –jarraian datozen bi koplekin kontrastatuz–, beti pertsonaren baten arreta erakarri edo deitu nahi du, testura bertara eramanaz pertsona hori.

Jainkoari zuzentzen zaionean edo Jainkoaz diharduenean Etxepareri darrion mundu-ikuskerak sekularizazio-prozesutik iragazi gabea da. Oso agerian uzten du giza bizitzak ez duela eratzen barruti autonomo bat: giza bizitza Jainkoaren borondatearen esku dago. Jainkoak eragin zuzena du giza ibilbidean:

Penak oro jiten dira Jeinkoaren nahitik
eta berak permititzen oro hobenagatik (XIII, 47-48).

Koplaren amaierak ere bete-betean erantzuten dio ikuspegi honi:

Jangoikua, zuk begira niri ere zuzena (XIII, 102).

Bere eskubidea zaintzeko Jainkoari eskatzen dio: giza bizitzan eragin dezakeenari, hain juxtu.

Aurreko lekzioa ere maila esperientzialetik emana zuen. Maitasun mundutarrean hain esperientzia ezkorrak izan dituen “ni”arentzat ere ikasteko bide izana zen bizi izandakoa. Horregatik, hain zuzen ere, has zezakeen “Amorosen gaztiguia”, “Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria” (II, 1), esanaz. “Ni” hori berori izan da lehen ikaslea, aholkua entzun duen lehena. Hamahirugarren kopla honetan ere “Mosen Bernat” da lehen aholku-hartzailea:

Berzen gaztigari inzan, orai adi gaztiga;
pena honez orhit eta hangoa ezak kojita (XIII, 72-73).

Beraz, aholkatzeko helburuarekin idatzitako bi lekzioetan aholku-emaile ez ezik, aholku-hartzaile ere bada. Bere burua barneratzen du aholkuan eta, hala, gizaki moduan aurkezten da, aholku-emaile – aholku-hartzaile harreman bertikala gaingaituz.

Lehen hamahiru kopla hauetan hartzaileari begira jartzen du komunikazioa Etxeparek. Jainkoa, Ama Birjina, maitea, bere burua, entzule-irakurle inplizitua... daramatza testura. Funtzio konatibo oso markatuarekin unean uneko hartzailearen arreta erakarri nahi du adierazten ari zaionarekin bat egin dezan. Guzti hori, euskaldunaren portaeran eragiteko bitarteko du.

Honela bada, zentzu moralizatzailearekin idatzita daude lehen hamahiru koplak. Gaztigua da aldagai bakarra; izan ere, batean, maitasun mundutarra Mariaren maitasunagatik ordezkatzeko aholkatzen du; bestean, bidegabekeriaren bat pairatuz gero, kontu guztia Jaungoikoari gomendatzeko ohartarazten du.

3. GAZTIGUETATIK DANTZARA

Lekzioak amaitu ostean, dantzara igaroko da Etxepare: “Kontrapas” (XIV) eta “Sautrela” rekin (XV) osatuko du obra. Bi dantzen izenak daramatzen koplen bidez, euskara mundu idatzira jaio izana ospatuko du.

Dantzetara jotzen du, euskara idazketaren iragazitik iragazi izanak sorrarazi duen transformazioa adierazteko: herri-hizkuntzatik hizkuntza landurako jauzia. Jaio berriak eragindako ospakizuna da: euskara birjaio da. Errenazimenduak esan nahi baldin badu, lehen aldiko errautsetatik denbora berriak azaleratzen direla, giro horretan euskara zaharra estatus berrira darama Etxeparek:

Lengoajetan ohi inzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan (XIV, 14-17).

Jaio berriak badu gurasorik; bata, “Garaziko herria” (XIV, 3; XV, 2), “Garaziko natura” (XV, 14) da; bestea, “haren adiskide orai Bordelen” dena (XV, 15): idazlea eta inprimatzailea dira guraso. Alegia, euskara idatziz eman duena eta idatzia argitaratu duena. Euskarak idazketaren estatusa ez eze, argitaratutako liburuarena eskuratu du. Errenazimenduko aurkikuntza den moldiztegiak aldi horretako European eragindako mirespenari batzen zaio Etxepare:

Oraidano egon bahiz
inprimitu bagerik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik (XIV, 30-34).

Idazketaren ekintzarekin batera argitara ematearena azpimarratzen da; idazketa eta liburua. Berritasuna ez dago bakarrik idatziz ipintzean, baita Errenazimenduak harrotasunez begiratzen duen moldiztegitik iragaztean ere.

Bere ekintza gogoangarriaz jabeturik zegoen Etxeparek ez zituen bere bizitzari buruzko arrasto asko utzi edo aurkitzeko zorterik ez da izan. Ezaguna den datu bakanenetakoa 1518an Eihalarreko erretore zela da. Beraz, XV. mendean jaiotakoa da Bernard Etxepare. Moldiztegiaren sorrera ere XV. mendekoa da, zehazki, erdi ingurukoa. Beraz, bere jaiotzaren bezperakoa den aurkikuntza batez baliatzera doa.

Erroak Errenazimenduan dituzten bi ekintza azpimarratzen dira bi koplak hauetan: idatzi eta inprimitu. Erro errenazentista du, halaber, ekintza omentsu horien subjektu izateak balioa hartzea eta, ohore, ondra eta ospe hori beren buruari aitortu nahi izana.

Paratestuan ez ezik, (liburuaren izenburuan, hitzaurrean, erregistroen laburpenean...), testuan bertan izendatu ditu ekintzok eta ekintzon subjektuak.

Ekintza ospetsua azpimarratzeaz gain, ekintzen subjektuak aipatzen dituzte koplek: bi lekutan egilea “Garaziko herria” (XIV, 3; XV, 2), “Garaziko natura” (XV, 14) eta behin inprimatzailea (XV, 14). Zinez, Garaziko herrira hedatzen du Etxeparek jauzi kualitatibo honek atxikirik daraman ohorea, baina,

Desir hura konplitu du Garaziko naturak
eta haren adiskide orai Bordelen denak (XV, 14-15)

dioenean, garazitar bakarra du gogoan: bera, noski.

Bi kopen gaia (baita hitzaurrearena ere) nobedadearen eta nobedade hori sorrarazi dutenen berri ematea da. Kodea bera dute gune bi koplek, kodeak eskuratu duen estatus berria. Horregatik nagusitzen da funtzio metalinguistikoa.

Ez dago funtzio metalinguiskoaren arrastorik aurreko kopletan. Funtzio honen presentziak / ez presentziak bereizten ditu batzuk eta besteak. Bigarren pertsonaren erreferentea kodea bera denez, funtzio konatiboa, funtzio metalinguistikoa indartzeko bitarteko bihurtzen da. Besterik zen funtzio konatiboa horren zeregina aurreko sailean: pertsona desberdinak testura erakarri eta, batik bat, pertsona horietako baten portaeran eragin: entzule-irakurlearengan. Erdi Aroko literaturaren zentzu moralizatzailearekin bat eginaz, kopen hartzaileari aholku batzuk luzatzen dizkio bere jokabideetan gogoan har ditzan.

Gutxienez bi alditan ondutako koplak lirateke. Hipotesi bezala bederen, Etxepare elizgizonak euskaraz idatzitako “liburuxka” bat zeukala defendatzea onargarria da. Herritarrek ezagutzen zuten hizkuntzan egina, giza portaerari buruzko ikasgaiak ematen zizkien herritarrei. Ondare hori esku artean zuela bere garrantziaz jabetzen da –herri-hizkuntza bat, euskara, idatziz ipinita dauka– eta garrantziaz jabetzeaz gainera, argitara emateko babeslea aurkitzen du. Bi koplak hauek liburua argitaratzeko erabakia hartu ondoren idazten ditu, orduan bakarrik uztar baitaitezke euskara idatzi izana eta berau argitaratzea.

Lafonek grafia eta hizkuntzaren erabileraz eginiko azterketak, azken bi kopletan –besteetan ez bezala– funtzio metalinguistikoa nagusitzeak, kodeari estatus berria eskuratu diotenak izendatzeak, azken bi koplak hauek liburua argitaratzera doala jakitean idatzitakoak izateak, honako ondorioari irekitzen diote bidea: *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratzen duen Etxepare, kultura errenazentistak ekarritako sentsibilitate berrian zeharo murgildurik ez egonda ere, sentsibilitate berriaz ohartzen da eta hainbat alderditan behintzat bat egi-

ten du berarekin. Argitaratzearen urrats hori emateko jada idatzita zeukan “liburuxka” batetaz baliatu zen. Erdi Aroko arte klerikalean hezitako idazle baten liburuxka zen eta ez Errenazimenduko humanista batena, baina bere garaiaren zigilua erantsiz argitaratzen du.

Adierazpen errenazentistaren garairik bereizgarrienean (1450-1550) argitaratu zuen. Gauza jakina da, berriz, aldi errenazentistari mugak jartzea zaila dela; izan ere, bere garapena ez zen eman aldi berean Europako herrialde desberdinetan: zenbait herrialdeetan XIV. mendearen lehen erdian kokatzen da aldi honen hastapena, bestetan, XV. mendearen bukaeran. Etxeparerentzat testuingururik hurbilena izan zitekeen Frantzian, adibidez,

La ruptura con la tradición medieval se consuma muy lentamente. Esta tradición es todavía muy viva en la primera mitad del siglo XVI¹⁴.

Gainera, Errenazimendua ez da heltzen urtealdi horietako adierazpen oro barneratzera: XVI. mendearen lehen hamarkadatan beraietan ez da aurkitzen Europa osoan leku bat agerkari oro berrikuntza honen ildoan kokatuta daukanik¹⁵.

Etxepareren agerkariaren lehen parteak Erdi Aroko pentsamendua du euskarri, baina bigarren parteak eguneratzeko ahaleginaren emaitza erakusten du.

¹⁴ BUCK, August et alii: *Literatura universal. Renacimiento y Barroco*, 128. or.

¹⁵ MARAVALL, José Antonio: “La época del Renacimiento”, LÓPEZ ESTRADA, Francisco (Ed.): *Historia y crítica de la literatura española. Siglo de Oro: Renacimiento*, 46. or.